

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateen arreta anbulatorioko intzidentzia-indizea txikia dela erakusten du azterlan batek

- *Lanbide-gertakariengatik artatutako pazienteen % 3,9k baino ez du jasaten kontrako gertaera bat, Journal of Patient Safety and Risk Management aldizkarian argitaratutako ikerketa baten arabera*
- *Analisia pazienteen 280 historia klinikoren auditoretzan oinarritzen da*

Espainian Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek osasun-arloko kontrako gertaeren tasarik txikienetakoa erregistratzen dute: % 3,9ko intzidentzia lanbide-gertakariengatik anbulatorioko kontsultetan artatutako pazienteetan. Hala adierazten du MC MUTUAL, FREMAP, Mutualia, Asepeyo, Fraternidad-Muprespa eta Ibermutua enpresek Miguel Hernández Unibertsitatearekin (Elx) elkarlanean bultzatutako eta [Journal of Patient Safety and Risk Management aldizkari zientifikoan argitaratutako](#) ikerketa batek.

Ikertzaile-taldeak 280 historia kliniko aztertu zituen, eta 11 kontrako gertaera detektatu zituen; hau da, artatutako 1.000 pazienteko 39koa da urteko tasa. Gertakari horien % 90,9 saihegarritzat eta arintzat jo ziren. Ez zen kasu larririk erregistratu.

Batez ere, honako hauen ondorioz izan ziren: arreta espezializatura bideratzean izandako atzerapenengatik (% 27,3); informazio medikoaren kudeaketan izandako urritasunengatik (% 27,3); medikamentuak ematean izandako arazoengatik, kontrako erreakzioak, kasurako (% 18,2); eta, neurri txikiagoan, profesional sanitarioaren eta pazientearen arteko komunikazioan izandako zailtasunengatik (% 9,1).

Hobekuntza-arloak eta gomendioak

Azterlanak zenbait neurri proposatzen ditu gertakari horien eragina murrizteko. Bestiak beste, honako hauek: protokolo espezifikoak ezartzea haiek detektatzeko eta prebenitzeko; osasun-langileei informazio klinikoa kudeatzeko etengabeko prestakuntza ematea; dokumentazio-akatsak identifikatzeko aldizkako auditoretzak egitea; eta konfiantzazko, ikaskuntzako eta etengabeko hobekuntzako ingurune batean gertakariak jakinaraztea sustatuko duen segurtasun-kultura bat sustatzea.

Hamarkada bateko konpromiso bateratua kalitate asistentzialarekin

Azterlan hau egin duten mutualitateek 15 milioi langile baino gehiago biltzen dituzte beren babes-ekintzan, hau da, Espainiako langile babestuen % 70. Mutualitate horiek Kalitate Asistentzialeko Espainiako Elkartearen (SECA) barruan finkatutako lantalde bateko kide dira, eta hamar urte baino gehiagoko ibilbidea partekatzen dute. Taldearen baterako helburua da entitate horiek babestutako langileei zuzendutako osasun-arretaren segurtasuna eta kalitatea hobetzea.

Lankidetza horri esker, mutuek aurrera egiten jarraitzen dute kalitate asistentzialeko estandar altuetan, eta tresna praktiko aurreratuak ezartzen dituzte beren kliniketan eta asistentzia-zentroetan, hala nola arrisku-mapak, lehentasunezko ekintzen zerrendak, gertakariak jakinarazteko sistemak eta profesionalei nahiz pazienteei zuzendutako prestakuntza-programak.

